

# DOMUND 2022

## “NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE”



**DOMUND**  
2022ko urriaren 23a  
23 octubre 2022

*Nire lekuko  
izango zarete*  
*Seréis mis testigos*

#DOMUND  
200 urte misioaren alde  
200 años al servicio de la misión  
Lagundu [www.domund.es](http://www.domund.es)

 Domund  
Alta Santuaren Misio Ekintzak

**DELEGACIÓN DIOCESANA DE MISIONES  
MISINOETARAKO ELIZBARRUTIKO ORDEZKARITZA**

Plaza Nueva, nº 4 – 2º  
48005 BILBAO Tlf. 94 401 36 99  
E-mail [misiobi@bizkeliza.org](mailto:misiobi@bizkeliza.org)

**“SERÉIS MIS TESTIGOS” “NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE”**

Adiskideok,

“Nire lekuko izango zarie” goiburua, geure bizimodu, hitz eta egiteen bidez lekukotasuna emoteko deia da. Aita Santuak dei egiten deusku gure ohiko lekuetatik harago lekuko izan gaitezan, Ebanjelioaren Barri Ona zabalduz, hau da, Eleizari dagokion misinoa geure eginez.

Gertu doguz guretzat berezi diran lekukoak, hain zuzen be, gure misiolariak. Horreekin batera, gu geu gara misiolari. DOMUND Eguna, otoitz egiteko, eskerrak emoteko, gure misiolariari laguntza emoteko eta lekuko izateko egin deuskuen deia entzun eta geure egiteko aukera da.

Aurton, Paulina Jaricot dohatsuak 1822an sortu eban FEDEAREN ZABALKUNDERAKO egintzak, DOMUND Eguna sustatu ebanak, 200 urte bete ditu. Jaricot dohatsua emakume ekintzailea izan zan, aitzindari bere sasoirako, emakume konprometitua, otoizlaria eta Kristorengan eta bere misinoan fede sendo eta sakona ebana. Iraunkortasun eta arduraz, arreta osoa jarri eban misinoetan eta behartsuengan eta berari esker ospatu daikegu beste urte batez misinoen munduko egun hau.

DOMUND egun ona izan! Gogoeta eta ekintzarako egun hau gure talde eta alkarteetan misino-bokazino barriak sortzeko aukera izango ahal da! Dei egiten deusuegu egunaren inguruan antolatutako askotariko jardueretan parte hartu daizuen. Zeuen esanetara gaukazuez, zuengandik gertu, zuen pastoral eta heziketa inguruetan sortu daiteken edozein beharizani erantzuteko.

Eskerrik asko zuen laguntzagaitik!

Feli Martin  
Misinoetarako Ordezkarria

**“SERÉIS MIS TESTIGOS” “NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE”**

Anai-arreba maiteok:

Beste urte batez, misinoen munduko eguna ospatuko dogu Eleiza osoan. Aurtengo ekitaldirako aukeratutako helburuak, **“Nire lekuko izango zarie. Seréis mis testigos”**, dei egiten deusku fedea, Barri Onaren aberastasunak ahalik eta lagun gehienei ezagutzera emotea irrikatzen dauan alkartearen fedea, irekitasunez, misino-senez bizi daigun. *“Kristau bakotxak misiolari eta Kristoren lekuko izateko deia jaso dau. Eta Kristoren ikasleen alkarte dan Eleizak Kristoren lekukotasuna emonez mundua ebanjelizatzeke misinoa baino ez dau. Eleizaren nortasuna, ebanjelizatzea da.”* (Frantzisko Aita Santua)

Jesusen Eleiza izanda, eleiz alkarte osoagaz bat, misino-egiteko horretan parte hartzea dagokigula sentitzen dogu. Misinoa, doea da, eta lekuko izanik misinoan parte hartzea, oparia.

Egiteko hau alkartean garatzen dogu. Domund Egun honetan, Aita Santuak dei egiten deusku hasierako kristauen ausardia eta uste osoaz berrekin deiogun Kristoren lekukotasuna emoteko egitekoari, Espiritu bakarrean bat eginda, bizigiro bakotxean hitz eta egintza esanguratsuak esanez eta gauzatuz.

**Lurraren mugaldetaraino**

*“Lurraren mugaldetaraino”* joateko agindua, gaur eta beti, gure burua eta bihotza mundu osora zabaltzera garoazan dei eta eskakizun da. Norbere burua eredutzat hartzeari itzi eta senidetasunaren unibertsaltasuna baloratzen laguntzen deusku. Gureak baino handiagoak diran zerumuga geografiko, sozial eta existentzialak aitatzen deuskuz Aita Santuak, jenteak muturreko giza egoerak bizi dituan lekuak. Mundu-mailako ardura hau erakusten dau Aita Santuaren ardurapeko Misino-egintzak erakundeak be, eta sekula galdu behar ez dogun bereizgarria da. Mila eta ehun lurralde inguruk osatzen dabe gure Misinoa; egundokoa da, beraz ekintzarako jardunlekua.

Misino-karismak munduko kanpoaldeak gure parroketan agertzera emoten ditu, alkarteetako kideok aberastuz eta unibertsalago, katolikoago eginez. Holan gure begirada zintzoago, inklusiboago eta zuzenago bihurtzen da, era guztietako bizitza eta aurpegi asko eta asko barne hartzen daualako. Behetik, txikienengandik begiratzea da, errukiz begiratzea, eta begirada horretan, gu ez ezik, Jainkoaren Espiritua da gure etorri eta goiargia eta protagonista nagusia. Ama Margarita M. Lopez Maturanak inoanez: *“misino-bizitza barruko bizitza sakonetik sortzen da”*. Horregaitik, misino-konfiantza otoitz sendoaren gainean eta otoitz sendoari esker baino ez da eratzen.

## **Erraldoien lepoan**

2022an, urteurren esanguratsuak ospatzen dihardue Aita Santuaren ardurapeko Misino-egintzak erakundean. Mundu osoko Eleiza gidatzen dauan Espiritu berak gizon eta emakume xumeak aparteko misinoetarako inspiratzen dituala baieztatzen deuskue gertaera honeek. Besteak beste, "Ume santuak – Ume misiolariak" dalako egintzari hasiera emon eutsan Charles de Forbin-Janson gotzaina; "San Pedro Apostolua – Sorterriko bokazinoak" egintza sustatu eban Jeanne Bigard eta abadeak misino-konpromisoa hartzera bultzatzeko gaur egungo "Misino-batasun Pontifikala" sortu eban Paolo Manna.

Fededun honeen artean Paulina Jaricot laiko gaztea nabarmendu gura dot. Hogeta bat urteko neska gaztea zala, historia egin eban misinoan, frantses katolikoei misino-bizitzan konprometitzeko dei eginez, otoitzaren bidez (taldean egiten zan) eta diru-laguntzagaz (asteroko konpromiso txikietan zehaztuz). Holan, misinoak, bakarrik misiolariei zegokien egiteko izateari itzi eta bateatu guztien ardura bihurtu zan. Gaur egun DOMUND eguna danaren jatorrian dagoan Paulineren ekimen honek bizirik dirau 200 urteren buruan kanpaina hoini esker. Orain dala gitxi dohatsu autortu izana aukera ona da emakume hau eta sinistedun lez izan eban balioa ezagutzera emoteko.

Aurtengo DOMUND eguna, dei argia da Jaunak bere lekuko izateko egiten deuskun deia berbizteko. Misinoa ez da Eleizaren bizitzaren atal bat, Eleizaren bizitza bera baino. Bertan parte hartzen dabe gure misiolariak, baina, aldi berean, baita bateatu bakotxak be.

Esker onez eta sakontasunez bizi daigun Misinoen Munduko Domeka hau eta eskatu deiogun Misinoen zaindari dan Jesus Umearen Teresa doneari 5 kontinenteetan Jainkoaren maitasuna ahalik eta lagun gehiagorengana helarazoteko egitekoan laguntzeko indarra nahi izateko grazia emon deigula.

✠ Joseba Segura Etxezarraga  
Bilboko gotzaina

**“SERÉIS MIS TESTIGOS” “NIRE LEKUKO IZANGO ZARETE”**

2022.eko urriaren 23a - Urtean zeharreko **XXX.** igandea

**SARRERAKO OHARRA**

Ongi etorriak ospakizun honetara. Beste urte batez, Elizak dei egiten digu Misioen Munduko Eguna, DOMUND Eguna, ilusio eta erantzukizunez ospa dezagun. Kanpaina honek Misioarekiko dugun konpromisoa gogorarazten digu, gutariko bakoitzari **“Nire lekuko izango zarete” “Seréis mis testigos”** esan baitzaigu. Hain zuzen ere, horixe da ekitaldi honetako kanpainarako aukeratutako goiburua, fededun bezala, geure buruaren eskaintzari dagokionez, aurrera pausua emateko eskatuz: Ebanjelioaren balioak misiolari senez bizi, benetako lekuko izateko.

**OHARRAK HOMILIARAKO**

Irakurgaietan (1. irak., eran. zal., Eb.) ikusi dugunez, Jainkoak entzun egiten du otoitz apala eta behartsuari lagundu egiteko dio bere larritasunetatik askatzeko. Otoitza eta laguntza, bi bide hauek, txirotuen aldeko aukera dira, salbamen-mezua ozen hots egitera garamatzan Misioa garatzeko bide (2. irak.)

Zerura igo aurretik, Jesusek azken aldiz hitz egiten die apostoluei. Entzun eta ikusi duten haiei (ik. 1 Jn 1, 1) hauxe esan die: “Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren indarra hartuko duzue, eta nire lekuko izango zarete” (Eg 1, 8).

Ikasleek Jesusen predikua entzun eta “betiko bizia duten irakatsiak” (Jn 6, 68) eskaintzen dituela aitortu dute. Eta beraien artean bizimodua egiten eta beretarrak “bete-betea” (Jn 13, 1) maitatzen ikusi dute. Ikusi eta entzundakoak lekuko bihurtu ditu. Mendekostez, Espiritu Santuak bere lekukoak “munduaren mugaldetara” bidaltzen ditu. Ikusi eta entzun zutenak goitik behera eraldatu zituen. Haietako bakoitzak, San Pauloren antzera, zera esan ahal izango du: “Errukarria ni, Berri Ona hots egingo ez banu!” (1 Kor 9, 16), hau da, “errukarria ni ikusi eta entzun dudanaren lekuko ez banaiz, “maite izan ninduen eta bere bizia nire alde eskaini” (Gal 2, 20) zuenari iruzur egingo nioke-eta!

“Nire lekuko izango zarete” diosku geuri ere Jesusek. Zek bihurtzen nau lekuko? Jainkoaz dudan esperientziak, Hitzaren irakurketan Jesusekin bat egiteak, behartsuenen aldeko nire konpromisoak.

## JAINKOAREN HERRIAREN OTOITZA

Espiritu Santuaren eraginez Kristoren lekuko bihurtuta, gure behar guztiak jarriko ditugu Jainko bihozbera eta errukitsuaren aurrean:

- Frantzisko aita santuaren eta gotzainen alde; Jaun berpiztuaren agerpen bizi izan eta hurkotasunez lagundu eta susta dezaten Jainkoaren Herria, kanpoaldeetan Berri Onaren lekuko izatera bultzatuz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure kristau elkarteen alde; otoitz, hausnarketa eta elkartasunetik munduaren ebanjelizazioari loturik iraun dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Misiolarien alde; Jainkoaren Erreinuaren lekuko ausart izanik eta honen alde bizia emanaz, lurreko behartsuenei lagun diezaieten, Berri Ona iragarritz eta bidegabekeriak salatuz. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gazteen alde; zabal diezaiotela beren bihotza misio-deiari eta beren burua berpiztuaren lekuko eta Jainkoaren Erreinuaren eraikitzaile izateko eskain dezaten. Eska diezaiogun Jaunari.
- Eukaristia ospatzeko batu garenon alde; Jainkoak maite gaituela jakinda, maitasun horren lekuko izan gaitzela erdibanatuz, zerbitzatuz eta gehien behar dutenen alde eginez. Eska diezaiogun Jaunari.

## ESKAITZA

Misioen Munduko Eguna, DOMUND Eguna ospatzeak otoitza, hausnarketa eta elkartasuna Jesusek Elizan duen misioan gogotsu parte hartzeko aukera direla berrestera garamatza. Ogi eta ardoarekin batera, Haren Maitasunaren lekuko izateko Eliza osoak egiten duen lana eta ahalegina aurkeztuko ditugu.

## OHARRA DIRUA BILDU AURRETIK

Batuko dugun diruarekin Aita Santuaren ardurapeko Misio-egintzak garatzen lagunduko dugu, zerbitzatzen dituzten herri eta elkarteen behar espiritual eta materialei aurre eginez. Eskuzabaltasunez jokatea lekuko izateko bide da eta gure ekarpena laguntza eraginkor da Berri Ona "lurreko mugaldetaraino" hots egiteko. Eskerrik asko eskuzabaltasunez jokatzegatik.

## AGUR

Domund Eguneko Eukaristian parte hartzeak gure kristau izatea misio-ikuspuntutik bizitzera garamatza. Senti gaitzen misiolari, gaur bereziki, berpiztuaren lekuko izanik Berri Ona bizi egiten diharduten gizon eta emakumeekin batera. Gure misio-lana ez dadila Domund Egunaren oroitzapen huts izan, eta bat egin dezagula pertsona horiekin etengabeko otoitz eta laguntzarekin.

## ELEIZBARRUTIAREN DIRU-EKARPENA – OMP

Urtean zehar, misinoakaz lankidetzan jarduteko hainbat bide dago. Aita Santuak, bere aldetik, adiera hau emon gura deutse Domund eguneko munduko kolekta guztiei: Misinoko lurralde guztiei eusteko izan daitezala, katolikotasunaren, hau da, unibertsaltasunaren zeinu lez.

**Aita Santuaren ardurapeko Misiolari Egintzek, OMP deitzen diranek, laguntzen banaketa zuzena bermatzen dabe, munduko Eleiza guztiek gutxieneko laguntasuna jaso daien.** OMP erakundeko Batzar Nagusiak, Aita Santuaren aginduz, beharrianak zeintzuk diran ikusi eta laguntzak banatzen ditu. Ekarpenen zati handiena Misinoko lurraldeetako ohiko beharrianetara zuzentzen da. Aparteko egitasmoak be babesten dira, ebanjelizazinoa eta giza sustapena aurrera erodateko. Gehiago jakiteko, 2021eko oroitza-txostenera jo esteka [www.omp.es](http://www.omp.es)

**Domund eguneko laguntzei esker, Eleizak munduko biztanleriaren erdiari, hain zuzen be Misinoko lurraldeetan bizi danari, eskaintzen deutso bere mezua.**

Misinoetarako Eleizbarrutiko Ordezkaritzatik esker ona adierazo gura deusuegu urtean zehar Aita Santuaren ardurapeko Egintzen alde egiten dozuen guztiagaitik.

Taldeek, parrokiek, kongregazioek eta partikularrek egiten douzuezan dohaintza eskuzabalen barri dogu eta laguntza horrek herrialde desbardinetan jarduten daben misiolarien beharrian materialei aurre egiteko balio dauala esan gura deusuegu.

Gure Eleizbarrutiko 160 misiolarik lanean dihardue 47 herrialdetan, hango alkarteetan biziz eta jardunez, Barri Ona iragarritz, Jainkoaren Erreinua eraikiz.

Posta elektronikoz bialduko dogu parrokia guztietara 2021eko sarreren txostena.

**OHARRA:** dohaintzak ze parrokia, alkarte erlijioso, ikastetxerenak... diran ondo jakiteko, arren eskatzen deusuegu GAIAN honako hau ipinteko: **lehenengo herria** eta **ondoren parrokiaren, ikastetxearen... izena.**

KUTXABANK-BBK \_\_\_\_\_ ES52 2095 0000 76 200002710 2

LABORAL KUTXA \_\_\_\_\_ ES22 3035 0019 90 019000941 8

BBVA \_\_\_\_\_ ES89 0182 1300 11 001491556 5

Zuon bankuaren app-an **Bizum bidez 00500** dalakoan egin daikezue ekarpena.

Misiolari guztien eta OMP erakundearen izenean, **ESKERRIK ASKO!**